

SESSION 2013

CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP

Section : LANGUES RÉGIONALES
BASQUE

COMMENTAIRE DIRIGÉ ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Le commentaire dirigé et la traduction sont à rédiger sur des copies distinctes.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

1-COMMENTAIRE DIRIGÉ

Azpiko testuaren azterketa egituratu bat proposatuko duzu.

« Asaba zaharren baratza »

Aitak Sabin ipini nahiko zidan izena, Sabino Aranaren omenez, bere ustetan hura izan delako euskaldunontzat sortu den gizonik handiena. Esan nahi dut onartzen zuela beste gizon batzuk ere izan direla gizadiaren historian zehar eraginkorrakoak eta gizakion ongizaterako onuragarriagoak -Fleming penizilinaren asmatzailea kasu, nire aitak asko miresten zuen bat aipatzeko-, baina Sabino Arana Goiriri debozioa zion, euskaldunontzat erabakigarria zen zerbait atzeman edo, nahiago bada, horrek ez baitio axola, asmatu zuelako; alegia, Euskadi euskaldunon aberria dela.

Horregatik, haren jaiotzaren urtemugan edo heriotzarenean -ez dut argi gogoan; bietan akaso-, trajerik hoberena jantzi, eta lanera baino lehen mezatara joan ohi zen nire aita oso goiz; halabeharrez, lanean oso goiz hasten zirenez. Harentzat, hau esanda guztia esanda legoke: Sabino Arana zen zeruko santurik handiena.

Batzuetan, lotara joaten nintzenean, argazki eta paper zaharrak ateratzen zituen zigarro kutxa batetik, eta nire ohe ertzean eserita erakusten zizkidan. Nolabait ere, gizon zorrotza zelako berarekin bakarka egotea deserosoa gertatzen zitzaidan arren, era berean desio ere izaten nituen momentu haiek, sentsazioa izaten bainuen ez nintzela nire aitaren semerik maitatuena, bakarra izan arren. Esan nahi dut ezin kexatu naizela maite ez ninduela-eta, baina iruditzen zitzaidala eduki ezin izan zuen Sabin izeneko seme haren nostalgia zuela.

Paperak eta argazkiak erakusten zizkidan bitartean, haien inguruko istorioak kontatzen zizkidan. Gehienetan, haurtzaroan hain sarritan hartzen ninduten gaixotasunen batetik suspertzeaz nengoela hurbiltzen zitzaidan zigarro kutxa eskuan hartuta.

Eriondoak haurtzaroko garairik gozonenetakoak izaten ziren. Alde batetik, sukarrrik gabe zeundelako jada, eta bestetik, batez ere ez zintuztelako eskolara bidaltzen oraindik, eta komikiak erosten zizkizutelako, eta ama beti ari zitzaizulako bekokian musu ematen, ea egiaz sukarra joan ote zitzaizun ikusteko.

Gaixo egoten nintzenean oso umore txarrekoa jarri ohi zen aita, eta behin baino gehiagotan esan behar izan zion amak bera ez zela ni ongi ez egotearen errudun. Baina onera egiten nuenean, berriz, pozez zoratzen jartzen zen, eta, esan bezala, bere altxorrak gordetzeko erabiltzen zuen zigarro kutxa hartuta etorri ohi zitzaidan ohe ondora.

Ez dakit nola, ohean esertzean askotan zangoak hartzen zizkidan azpian, baina bera ez zen konturatzen, antza, edo ez zitzaion iruditzen min egin behar zidanik, eta, noski, ez zen hala izaten, izango baitzituen erraz laurogeita hamar kilo. Ni, noski, pentsatzen dut saiatuko nintzela hurbiltzen zitzaidanean zangoak ahalik eta gehien atzera baztertzen, baina kontua da -ohea oso zen estua, beharbada- oroimen hori dudala: askotan hartzen ninduela azpian, eta, gezurra dirudien arren, ez nintzela gai min ematen zidala esateko.

Erraz izan behar zuela dirudi, orain ikusita, "aita, aldendu pixka bat, zangoak harrapatzen dizkidazu-eta" esatea, baina orduan ez nintzen ausartzen. Orain arte,

horretan pentsatu izan dudan guztietan, iruditu izan zait beldurrak ez ezik -berez aitak inoiz astindu ez ninduen arren, beharrik ere ez zuen-, gehiegizko errespetuak ere behartzen ninduela txintik esan gabe bere zama pairatzera. Baina, honez gain, iruditzen zait beste arrazoi bat ere bazela : hain pozik ikusten nuen bere semearekin momentu zoriontsu hura bizi zuelako, ezen gaizki baineritzon zangoak azpian hartzen zizkidalako arrunkeriarekin berarentzat liluragarria eta perfektua zen egoerari, txikiena izanda ere, eragozpenak jartzeari.

Giro hartan erakutsi zizkidan, besteak beste, Sabino Aranaren argazkiak ; eta hiru behintzat -mahai aurrean luma eskuan duela ageri dena bat, kartzelan dagoeneko beste eta hirugarrena kaputxinoz beztitua datzana-, oraindik ere aurrean banitu bezala ikus ditzaket.

[...]

Ramon Saizarbitoria, « Asaba zaharren baratza », *Gorde nazazu lurpean*, Erein, 2000, p.403-405.

Galderak :

- 1) Erakuts ezazu narratzaileak nola nahasten eta txirikordatzten dituen uneoro bere aitaren figurarekiko errespetua, maitasuna eta ironia, tonu literario berezi bat sortuz.
- 2) Nola erakusten du testuak balioen eta sinesteen transmisioa modu afektibo batean egiten dela?
- 3) Zein heinetan egiten du bat testu honetako protagonistak Saizarbitoriaren literaturako pertsonaia maskulino arketipikoarekin?

2-TRADUCTION

Version

Hor, bristi-brasta heldu zaiku nunbaitik hirizain bat gaitza. Orai gira orai pollitak! Tolosako jujeak nun diren, eta nun behar-bada presondegia, jakinen dugu orai berandu gabe, ni beldur.

Hemen bigarren mirakulu bat: hirizaina xut-xuta dago, ahorik ideki gabe hura ere, entzuten. Hirizaingoaren eta jendetasunaren ikasteko hunat jitea on lukete Pariseko hirizain hogoi ta bortzek...

So nagolarik Tolosakoari, laztura batek hartzen nu behin, gero begirune haundi batek, eta azkenik irria jauzten zait gozoki. Ondar gerlan alemaner ikusi ginuen jauntzi hura bera dakar, sasiko gizon gaixtoen jauntzi ñabarra, bainan zer oinetako ederrak ez derabiltza, nolako plaka disdiranta ez xilko-parrean, nolako gerrikoa ez halaber, larru lodi leunezkoa, sabre laburraren untziñoa datxikola, ezkerreko ixterraren eretzetik beheiti dilindan!

Jean Etxepare

Beribilez, 1931

Thème

Jacques: Je perdais tout mon sang, et j'étais un homme mort si notre charrette, la dernière de la ligne, ne se fût arrêtée devant une chaumière. Là, je demandais à descendre ; on me met à terre. Une jeune femme, qui était debout à la porte de la chaumière, rentra chez elle et en sortit presque aussitôt avec un verre et une bouteille de vin. J'en bus un ou deux coups à la hâte. Les charrettes qui précédaient la nôtre défilèrent. On se disposait à me rejeter parmi mes camarades, lorsque, m'attachant fortement aux vêtements de cette femme et à tout ce qui était autour de moi, je protestai que je ne remonterais pas et que, mourir pour mourir, j'aimais mieux que ce fût à l'endroit où j'étais qu'à deux lieues plus loin. En achevant ces derniers mots, je tombai en défaillance. Au sortir de cet état, je me trouvai déshabillé et couché dans un lit qui occupait un des coins de la chaumière, ayant autour de moi un paysan, le maître du lieu, sa femme, la même qui m'avait secouru, et quelques petits enfants [...]

Le Maître: N'est-ce pas de cette femme que tu vas devenir amoureux?

Diderot, *Jacques le Fataliste et son maître*, 1796